

# Hitzatzea

## Bibliobus bat basamorturako

GONZALO MOURE

PATXI ZUBIZARRETAK itzulita



Grezieraz, mudantzei *metafora* esaten zaie. Urgentziazko albiste apasionatu hau idatzi bitartean, Santoriniko errepideko kamioi bat datorkit gogora, metaforaz betea: Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako Bibliobusa ikasturte honetan bertan abian izango da. Irakasle editore baten amets eroa izan zen (Kalandrakako Manuelarena), eta ikastetxe galego bateko ehunka gazterena (Maringo San Narciso), eta zenbait zororen –eta, hortaz, idazleren– erokeria: Ana Rosetti, Ricardo Gómez, Antonio Polo, Susy Alvarado, Patxi Zubizarreta eta ni neu.

Maringo hurrek nola edo hala lagundu nahi izan zieten haur sahararrei. Orduan oroitzeari ekin genion: hamada algeriarrean jaio ziren, baina espainiarren seme-alaba edo biloba dira. Kale eta errepide frankistetan erakutsi beharrak halako izu-ikara eragiten zigun NAN urdinaren jabeak. Haiei, ordea,



harrotasuna pizten die. Eta amorrua –Saharan egon, dagoena, baina ikusezina dena: amorrua seme-alaba eta biloba horiek gaztelania ikasten jarraitu nahi dutelako, eta *madrasa* ziztrinetan nekez ikasterik dutelako, Erdialdeko European inprimatutako liburuekin, baina, ñ-rik gabe. Gure estatu honek, Cervantes deritzan bidaia eta turismo agentzia batean urtero hainbat milioi xahutzen dituenak, egundo, sekula ez du eskaini liburu bakar bat ere gaztelania ikasi nahi duten haur errefuxiatuek aukera izan dezaten. Are gutxiago irakurketa libururik. Eta horixe izan zen gure ideia: izan dadila bibliobus bat kanpamentuetako lasto-buztinezko eskoletan ibiliko dena, irakurketa zabalduko duena, eta, irakurketarekin batera Egonezina, Jakia-gosea eta Errebeldia, alegia, Jakituriaren izeba, Alaitasunaren amona.

Aldi berean, Bibliobusa aitzindaria izatea nahi genuen, eta haren bidez hainbat jende itsasora zedila harea ezin lehorragoan, hau da, maisu-maisu-

trak, irakasleak, ipuin kontalariak, titiriteroak, aktoreak, pintoreak, zine zuzendariak, hitz batez esatearren, jende eroa, eta bainatu zitezela haur beltzaranen erdian, ipuinak irakurri, liburuak maileguan eman, nork bere proiektu pertsonal txikia burutu zezan. Dagoeneko zerrenda luzea dugu prest, hemendixe lehen dunaraino jauzi egiteko moduan. Baina are gehiago nahi dugu: zuk ere, irakurle horrek, parte hartzea.

Eta bilatzeari ekin genion. Cervantes Institutuak, bidaia eta turismo agentzia baino gehiago, tauromakia eskola dirudienak, modu txarrean toreatu zituen idazleak, gerripeko ezpata kolpe ugariz. Biblioteca Nazionala izan zen gero. Asko uste eta gutxi izan han ere, izen eta izenondo hutsalak. Baina, azkenean, hara non agertu zen Txomin izeneko gizon bat Saharan, noiz edo noiz Euskal Herriko bulegora itzultzen dena, ahantz ez dezaten. EAJren parlamentaria izandakoa oraintsu arte, Aurrekoetxea abizenekoa. Pertsona zintzoaren adibidea aukeratu beharra izango

## Hitza

bagenu, ameslari bezain eraginkorra, horixe Txomin da. Eta egun batez ekintzaile eraginkor horrek esan zigun lehendakariak hartuko gintuela. Eta joan ginen, joan, ilusioz beterik, eta pozarren irten ginen: Ibarretxek baiezkoa eman zigun, noizbait neskabila saharar batek oparitu zion PVC-zko eraztunari eragin bitartean (eraztun hori dela eta, espainiar eskuinkaikuak sekta ilun batean militatzea leporatzen ez dio ba!).

Horra onena zer izan zen: paradoxa hutsa da haur sahararrentzat gaztelaniazko liburuak nork eta Eusko Jaurlaritzak eskaini behar izatea. Eta haren erantzuna: gaztelania gure hizkuntza ere bada. Eta bibliobus paradoxikoa metafora bihurtu

zen. Dagoeneko Eusko Jaurlaritza lanean dabil, autobusean apalak eta kutzak ipintzen, kapeluak, mozorroak eta enparauak sartzeko. Eta *madrasa* eta *madrasa* artean lo egin ahal izateko oheak. Eta gure argialetxeak lehen bidalketak prestatzen ari dira. Eta udaletxeren batek, Fragakoa kasu, Hueskan, dirua eman du autobusa abian jar dadin, hitzek hautsa harrotu dezaten. *Hamdulilá*, eskerrak Jainkoari, nork bereari.

Hilabete gutxi batzuk falta dira. Autobusean ameslarien izen guztiak idatziko ditugu, baina bazter bat utziko dugu honakoa idatziz ahal izateko: METAFOREN KAMIOIA. Grekoren batek ulertuko ahal du.

Balitzko boluntarioak harremanetan jartzeko:

Ricardo Gómez: [gomezricardo@telefonica.net](mailto:gomezricardo@telefonica.net)

Gonzalo Moure: [gmoure@teleline.es](mailto:gmoure@teleline.es)

Patxi Zubizarreta: [zubinet@euskalnet.net](mailto:zubinet@euskalnet.net)





## Egin zaituz Galtzagorri Elkarteko bazkide

1. Jarraian aurkezten dugun fitxa bete eta ordainketa-agiriarekin batera, gure helbidera bidali:

### Galtzagorri Elkartea

Zemoria, 25, behea. 20013 Donostia. Tel.: 943471487

behinola@galtzagorri.org — www.galtzagorri.org

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Posta-kodea: .....

Telefonoa: ..... faxes: .....

e-maila: .....

Ogibidea: ..... lantokia: .....

2. Urteko bazkide-kuotaren ordainketa egin (32 €)

Galtzagorri Elkartearen kontu-korrontean dirua sartuz:

### CAJA LABORAL – EUSKADIKO KUTXA

sukurtsala: Loyola 15 (20.014 Donostia)

kontu-zenbakia: 3035 0242 6 8 242 0 00247 1

Galtzagorri Elkarteko bazkide guztiak doan jasoko dituzte Elkartearen argitalpen guztiak.